



BILAUA DESERAIKITZEN

Unai A., Peru E., Naiara G., Leire O.

Kolore, sinesmen, sentimendu, nazionalitate, kultura... guztien gainetik beti ere pertsonak daude, hori dela eta, gure herriko atek irekiak egon behar dira edozein herrialdeetako pertsona ororentzat, historian zehar beraienak irekiak egon diren bezala. Urtero 15 - 24 urteko 27 milioi gazteek beraien herrialdea uzteko erabakia hartzen dute. Nola itxiko dizkiogu atek etorkizunari? Ez al gara bizi mundu global batean?

Mundu globala izan beharrean, mundu desorekatua dela esan beharko genuke. Milioika pertsonak egunero bizitza jokutzen dute itsasoan barrena; beraien familia

alde batera utziz eta etorkizun oparo batean bila. Guk berriz gauero etxe duin bateko atea ixten dugu etorkinen aurkako aurreiritzi xenofoboak azalaratzen.

“Lan postua kentzera etortzen dira”

Datuek ezeztatzen dute aurreiritzi arrazista hau. Espainian jaiotako hiritarren langabezia portzentaia %18 da; etorkinena berriz %35,7. Datu esanguratsua esaldi honekin erkatuz gero. Lan postuari dagokionez, hiritarrak egin nahi ez dituzten lanak egiten dituztenak; lana kentzen dutela? ez da egia. Zein soldata duten aztertuz gero, Espainiako hiritar batekin konparatuz gero, %35,9 gutxiago irabazten dute eta urteak aurrera egiten duten ehinean arraila handitzen ari da.

“Gehiegi gara”

Azkeneko hamarkadetan biztanleriaren piramidea aldatzen hari dela argi dago, eta beraiek dira aldaketa honetan garrantzitsuak. Biztanleria berri honen ezaugarri nagusia zahartzaroan dago, egunero gazte gutxiago eta zahar gehiago. Hori dela eta, etorkinek jaiotze tasa handitzea eta ongizate estatua mantentzeko garrantzitsuak dira; segurtasun-soziala eta pentsioen parte direlako, besteak beste.

“Ez dira kulturen murgiltzen”

Nola liteke herrialde berri batera mugitu eta bertako kulturen nahastu nahi ez izatea? Ez da ba izango gure aurreiritziek ez dietela gizarteratzen uzten?


Atzerritarren irudia onartzeko dugun gaitasuna ez da askotan beraiek espero dutena. Partido Popularrak, nazionalitatea lortzeko “espainiartasuna” neurtzen duen azterketa bat ezarri zuen bere hauteskunde kanpainean. Paradoxa polita, izan ere, gutako zeinek gaindutuko luke gure Espainiako hiritartasun maila baloratzen duen test-a? Hipokresia behin ere gure gizarte “multikultural” honetan. Momentu bat hartu beharko genuke zein kultura erakutsi beharko genuke pentsatzeko.

“Hezkuntza maila jaitsi”

Espainian, 6 urtetik 16 urtera arte hezkuntza eskubidea biltzen du legeak. Atzerritarren %9 bakarrik da ikasle Espainian. Egoera sozioekonomikoa da ikasleen porrotan eragin zuzenena duen faktorea. Bestalde, errendimendu baxuagoa

izatekotan ez du inola ere klasean ematen ari diren materiaren kalitatean eraginik.

Hori dela eta, aurreiritzi guzti hauek alde batera uzteko momentua iritsi da, iriki ditzagun ateak etorkizun multikultural bati eta ohartu gaitezen beraien laguntza beharrezkoa dugula gure herrialdean. Hori dela eta behar beharrezkoa dugu guztion artean herrialde multikultural bat lortzea, instituzio publikoen lanaren lagutzaz eta herrialde guztien laguntzarekin.

LAN POSTU BAKOITZAREN DATU DEIGARRIAK

FUENTE: EPA, 3er Trimestre 2015. Instituto Nacional de Estadística (INE). % por tipo de ocupación sobre el total de ocupados por nacionalidad.

Argi dago dibertsitate kulturala lortzea XXI. mendeko erronka bat dela, baina nola iritsi gaitzke helburu honetara? Erakunde desberdinek dibertsitate kulturala areagotzearen, etorkinei zuzenduriko programak sustatzen dituzte. Azken urteetan, integrazioa bultzatzeko planak burutu dira herritarren bizikidetzan laguntzeko xedea izanik. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak “Plan Vasco de Inmigración, Ciudadanía y Convivencia Interculturala” deiturikoa eskaintzen du, nagusiki kolektibo honen funtsa lana eta hezkuntza izateko eskubidea eta haien diskriminazioa ekiditzean dago. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere, etorkinen baldintzak hobetzeko neurriak hartzen ditu hainbat programa aurrera eramanez: “Programa de acompañamiento especializado”, “Programa de atención psicológica”, “Programas de gestión activa de Inclusión”, etab.

Programa hauen inguruan dagoen ezagutza globala okerra al da? Herritarren ustean, programa horiek tokiko jendeari dirua kentzen diote immigranteei emateko. Sinesmen hau, guztiz zentzugabea da, izan ere, Igone Virtok (Irungo udaletxeko zerbitzu sozialen, hezkuntzaren eta gazteen arloko zuzendariak). dioenez, udaletxeek ematen duten laguntza ekonomikoa herritar guztientzako prestatua dago, bai bertan jaiotakoentzako eta bai immigranteentzako.

Honen harira sakonki jorratuz, Igone Virtok, programen inguruan hurrengo argitu du: “Me parece muy importante que no se creen guetos, entiendo que los programas son interesantes y me parece que son los adecuados porque están intentando suplir una carencia o unas necesidades que tienen estas personas”.



Kode honek Igone Virtoren elkarrizketa ikusteko aukera eskeintzen du

Eztabaidaezina da plan hauek gure gizartean finkatu behar diren baloreak defendatzen dituztela, baina bereziki immigranteei zuzendurikoak izanik banaketa bat egiteko arriskua agertzen da.

Kolektibo honentzako soilik sortutako programak egitearen ondorio zuzena, bakarrik etorkinen arteko erlazioa ahalbidetzea da. Horrela, immigranteen arteko harremanak hurbilagoak dira eta tokiko jendearekin erlazioatzea zailagoa bihurtzen da. Nahiz eta etorkin bat hemen lau urtez bizitzen egon, integrazio prozesua konplexuagoa da, hasteko erakundeek eskaintzen dituzten laguntzak lortzeko baldintza batzuk bete behar dituztelako.

Hala ere, Igone Virtok azpimarratzen du “en ese sentido es muy importante que estas personas, una vez que tienen hecho ya su proceso de acogida, sean usuarios de los recursos comunitarios en general”, izan ere, tokiko jendea eta etorkinen arteko bereizketa gutxituko litzake. Gainera, esan beharra dago, sinesmenak eta mitoak zuzenak ez direla frogatzeko modu bakarra, tokiko jendeak etorkinak ezagutzea eta hau ziurtatzea dela.

Etorkinek ere baliabide komunitarioak eskuratzea garrantzitsua da, baina erraza al da laguntza hauek tokiko jendeak bezala etorkinek izatea? Kanpotik datozenek gure laguntzak kentzen dizkigutela pentsatzen dutenak oker daude. Virtok baieztatzen du herritar guztientzat laguntza berdinak daudela. Immigranteek, gainera, baldintza batzuk bete behar dituzte, zuzenki herritarraren erroldarekin lotura zuzenak dituena. Espainiako Gobernuaren arabera, nazionalitatea lortzeko beharrezkoa da Espainian urte batzuk modu legal batean bizitzea, kasuaren arabera, hamar, bost, bi edo urte bat izanik.

Normalean etorkinek hamar urte bizi behar dute hemen nazionalitate espainiarra lortzeko, bost urte errefuxiatu kondizioa baldin badute, bi urte jatorri iberoamerikarra dutenak eta urte bat Espainian familia dutenak. Argi dago beraz, laguntza sozialak eskuratzeko irizpide nagusia nazionalitatea izatea bada, etorkinek zailtasun gehiago dituztela laguntza horiek eskuratzeko.

Larriena, mito eta sinesmen hauek areagotzen dituzten berriak dira. Izan liteke gure kulturaren ondorioz, denok, arrazista txiki bat barnean edukitzea eta berri horiek, ahoz ahoko komunikazioarekin batera, arrazista txiki hori handi egitea. Horregatik, kritikoak eta zentzudunak izan behar gara jasotzen dugun informazioarekin. Izan ere, Virtok nabarmentzen duen moduan “todos compartimos algo, cada uno tiene su propia cultura pero tengo que tener un respeto a la persona de al lado, aunque sea minoritario y ese es el reto de nuestra sociedad”. Gurea da, beraz, benetako herri multikultural bat sustatzearen ardura eta inklusioarekin batera gizartean bizikidetzaren alde egitea.



